


6 mantangorri



LIBURUA

AZOKA

**Izenburua:** Marmar eta Karkar.**Egilea:** Tracey Corderoy. Marrazkiak: Lee Wildishen. Itzulpeta: Usoa Wyssenbach.**Orrialde kopurua:** 96 orrialde. **Argitaletxea:** Declee.**Usoa Wyssenbach Ibarra**

MARMAR ETA KARKAR BILDUMAREN ITZULTZAILEA

«Nolako portaera izango genuke araurik gabeko mundu batean? »

Haur askoren ametsetako mundua kontatzen dute Marmar eta Karkarren istorioek. «Bi troll higuengarri» direla diote. Mukiak, zizareak, janari koipetsua eta zikinkeria leku guztietan aurki daiteke troll hauen eguneroako bizi-tzan. Baino higuengarriak izan arren, irakurle guztien irribarrea lortzen dute.

Zergatik diozue Marmar eta Karkar bi troll higuengarri direla?

Mukiak biltzen dituzte pitxarretan, lizundutako gazta jaten dute eta sekula ez dira garbitzen. Horregatik, nahiko nazkarriak dira, baina aldi berean oso barregarriak ere badira. Eta liburu hauetan kontatzen diren istorioak oso entretenigarriak eta politak dira.

Nolakoak dira bi troll protagonistak?

Marmar troll oso handi eta moreada, eta izugarri gustatzen zaio lokatzetan borrokatzea eta lo egitea; bereziki, bazkalostean siesta egitea. Eta ez zaio batere gustatzen garbitza, eta siestatik iratzartzen dutenean izugarri hase-rettzen da. Doministiku egiten duenean gai da gela oso bat mukiz betetzeko.

Bestalde, Karkar dugu, troll txiki eta berde bat. Gehien gustatzen zaiona biek duten txakurtxo da. Arkakusoz josita dago, eta, Marma-

ri bezala, lokatzetan jolastea gustatzen zaio gehien troll txiki honi ere. Arauak betetzea, ordea, ez du gustuko.


Nolako istorioa kontatzen du liburuak?

Bi troll hauak elkarrekin bizi dira, eta bi liburu hauetan egileak eguneroako pasadizo dibertigarriak kontatzen dizkigu. Istorio oso arruntak dira, baina bi trollen ikuspegitik kontatuta daude; oso entretenigarriak dira. Zinemara joaten dira, eta han sekulako nahas-

tea sortzen dute, adibidez. Bigarren liburuan eskolara itzultzen dira, eta sukaldetan zegoen luntx bat aldaketak egindingo dizkiote. Hasciera batean janari osasungarra zena sekulako nazkarrikeria bihurtuko dute. Barre gustura egiteko aukera dute heldu eta gaztetxoek kontakizunekin.

Eta ingurukoei ez al die nazka ematen?

Bai, bai, gehienei bai. Istorio batean, esaterako, Marmaren izeba bat joango zaie bisitan. Izeba oso



garbia da, eta bi hauak aldatzen saiatuko da, eta etxea garbi-garbi uzten ere bai. Bizimodu nazkarri hori aldatzen nolabait. Baino ez da hain erraza edonor aldatzea, eta Marmar eta Karkar are gutxiago. Istorio xelebreak sortuko dira.

Marrazkiek ukitu berezia ematen diote liburuari.

Bai, oso ilustrazio politekin daude apainduta, eta horrek irudimena garatzeko aukera handiagoa ematen du. Ume txikitxoentzat oso liburu erakargarriak direla uste dut; oso irakurterrazak, dibertigarriak eta entretenigarriak dira. Berez, 5 urtetik 8ra bitartekoentzat dago eginda. Hori izan liteke adin aproposena. Baino helduagoek eta haurren gurasoek ere, adibidez, oso ongi pasatzen dute trolen istorioekin.

Umeen ametsetako mundua irudikatu du egileak?

Egileari buruz zerbait irakurri dut; Tracey Corderoy da idazlea, eta berari asko gustatzen zaio haurrentzat idaztea. Beti esaten du hizkuntzaren bidez berak landu nahi dituela irakaskuntza batetik eta imajinazioa bestetik. Agian hori izan liteke bere asmoa. Nik uste dut umeei halako gauzak beti iruditzen zaizkiela barregarriak. Arauak eta garbitasuna beti ditugu etxeen, baina hauak ordena horretatik ateratzen dira. Nolako portaera izango genuke araurik gabeko mundu batean? Hori pentsatzen bidea zabaltzen du liburuak; ilez beteta dagoen etxe bat imajinatzeko bidea, esaterako. Anarkia moduko bat dira.

Nola sentitu zara liburua euskaratzean?

Dibertitu eta ongi pasatzeko aukera eman dit, zalantzak gabe. Horretan ere pentsatu nuen izenburuan pentsatzen ari nintzenean. Karkar hori berez ez da ingeleseko liburuaren itzulpen zehatza. Zarkar ere izan zitekeen, baina azken batean horrekin jolasten da liburu osoan ezta? Dibertizeari tartea eskaintzen zaio liburuan, eta zein izango litzateke izen hobea? Karkar, nire iritziz, aproposagoa da, barruan topatuko duguna zuzenean islatzen duelako.